# OTAZU

– Araba / Álava –

Otazu herria Gasteizetik 5,5 km-ra dago. Hiriburuan N-2130 errepidea hartu behar da bertara iristeko.

Otazu 1025eko dokumentu batean ageri da, Donemiliaga Kukullari golde burdina bat emanez Harhazua barrutiaren barruan. Jerónimo Aznar gotzainak 1256an egindako parrokien zerrendan ere badago. Gaur egun, Otazu herrian El Salvador hilerria dago, Gasteizetik atera eta gero.

El pueblo de Otazu se encuentra situado a unos 5,5 km de Vitoria, y desde la ciudad se accede a él por la carretera N-2130.

Otazu ya aparece en un documento de 1025 entregando a San Millán de la Cogolla una reja dentro del término de Harhazua, y también en la lista de parroquias de don Jerónimo Aznar, en 1256. Hoy en día Otazu acoge el cementerio de El Salvador, trasladado fuera de Vitoria.

## *Tourseko San Martin eliza / Iglesia de San Martín de Tours*

Eraikin hori herriaren goiko aldean dago, eta XV. mendearen amaieran eta XVI. mendearen hasieran eraiki zuten. Elizpea XVIII. mendekoa da, eta edertasun handiko portada erakusten du. Erromanikoaren eta gotikoaren arteko trantsizioaren adibide interesgarria da. Lau arkibolta zorrotz ditu, lehenengoa eta hirugarrena baketoiarekin eta bigarrena eta laugarrena ertzean moldurarekin. Gainera, hirugarren arkibolta moldura polilobulatuz dago apainduta. Arkiboltak zimazio liso batean oinarritzen dira, eta, horren azpian, fuste lisoko zutabeak daude. Deskarga-arkua forma obalatuko motibo uhinduak apaintzen du, punteaketarekin, hostoak imitatuz.

Albo bakoitzean sei zutabe daude; hiru, nagusiak eta hiru, zutabearteetan. Azken horien kapitel guztiak berdinak dira, hosto estilizatuak eta punteaketak simulatzen dituzten elkarren arteko loturekin, eskuinaldeko kanpokoa izan ezik, zirkuluetan inskribatutako loreen gaia baitu. Kapitel nagusietan, ezkerretik eskuinera, arrano bat animalia bat harrapatzen ikusten dugu, untxia izango da, ziurrenik; bi zirkulu sei petaloko loreekin, hiru lobuluko hostoak eta punteaketa-apaindura, baita arrano txiki bat ere bi zirkuluen arteko angeluan; zaldunaren burua, joera gotikoko ezaugarriekin, irribarretsu eta adats luze samarrarekin; haritz-hostoak eta pikondo-hostoak janbetako zutabetxoetan. Eskuinaldean, damaren burua kokospeko uhalarekin; ezaugarriei dagokienez zaldunaren antz handia du, eta motibo geometrikoz eta hostoz dago inguratuta; kapitel bikoitza, bata bestearen gainean, hosto estilizatuak kiribilduran iraulita, eta, horien artean, goiko aldean, felido eta hirusta bana; eta hiru lirio-lore alderantzikatuta, erdikoa almena-motiboa gainean duela, eta, lirioen artean, felidoen

Es un edificio situado en la parte más alta del pueblo, construido a finales del siglo XV y comienzos del XVI. El pórtico es obra del siglo XVIII y cobija una portada de gran belleza, y un ejemplo muy interesante de transición del románico al gótico. Presenta cuatro arquivoltas apuntadas, la primera y la tercera con baquetón y la segunda y la cuarta con moldura en arista. Además, la tercera arquivolta está decorada con una moldura polilobulada. Las arquivoltas descansan sobre un cimacio liso, y bajo él columnas de fuste también liso. El sobrearco aparece decorado por un motivo ondulado de forma ovalada y con punteado, que imita hojas.

Encontramos seis columnas a cada lado, de ellas tres principales y tres en los intercolumnios. Los capiteles de estas últimas son todos iguales, con entrelazos simulando hojas estilizadas y punteados, menos el de la parte exterior derecha, que recoge un tema de flores inscritas en círculos. En los capiteles principales, de izquierda a derecha, vemos un águila en presa sobre un animal, seguramente un conejo; dos círculos con sendas flores de seis pétalos insertas en ellos, hojas trilobuladas y decoración de punteado, así como una pequeña águila en el ángulo entre los dos círculos; cabeza de caballero, con facciones ya tendentes al gótico, con sonrisa y media melena; hojas de roble y hojas de higuera en las columnillas de las jambas. Ya en el lado derecho, cabeza de dama con barbuquejo, de estilo muy similar a la del caballero en sus facciones, enmarcada por motivos geométricos y hojas; capitel doble, uno sobre otro, de hojas estilizadas vueltas en voluta, y entre ellas, en la parte superior, un felino y un trébol; y tres flores de lis invertidas, la central con un motivo de almenas sobre

Santa María la Real fundación

buruak. Harroin nagusiak atzaparrekin, zurtoin uhinduz eta hostoz daude apainduta, eta bigarren mailakoak, atzaparrekin. Multzo osoa plinto batean oinarritzen da, banku luze baten ondoan.

Portada hori Gasteizen iparraldean dagoen Durako parrokiakoarekin lotuta dago, hurrengo hauei dagokienez: arkiboltako eta deskarga-arkuko apaindura lobulatua, zirkuluetan inskribatutako loreak, harroin apainduak edo bigarren mailako zutabeetako kapitelak, bi portadetaniaia berdin errepikatzen direnak, eta bereziki zaldunaren eta damaren buruak. Horrez gain, motibo lobulatua, deskarga-arkuaren uhindura, bigarren mailako kapitelak eta harroinak, eta kapitel batzuk –hala nola arranoa harrapakina harrapatzen– Argandoñako elizako absideko leihoan ere aurki ditzakegu, baina kasu honetan erdi-puntuko arkuak apainduz, leihoetarako horiek erabiltzen ziren eta; arku zorrotzak portadetan erabiltzen ziren. Hori da Arabako

ella, y entre las lises cabezas de felino. Las basas principales se decoran con garras, tallos ondulantes y hojas, y las secundarias con garras. Todo el conjunto descansa sobre un plinto junto a un banco corrido.

Esta portada se relaciona con la de parroquia de Durana, al norte de Vitoria, en la decoración lobulada de la arquivolta, del sobrearco, las flores inscritas en círculos, las basas decoradas o los capiteles de las columnas secundarias, que se repiten en ambas portadas de manera casi idéntica, y en especial en las cabezas del Caballero y la Dama. Además, el motivo lobulado, el ondulado del sobrearco, los capiteles secundarios y las basas, así como algunos capiteles –como el del águila en presa– los encontramos también en la ventana absidal de la cercana iglesia de Argandoña, aunque en este caso decorando arcos de medio punto, que eran utilizados para las ventanas, mientras que los apuntados se reservaban para las portadas,

*Portada* / *Portada*







*Portadako kapitelak*

*Capiteles de la portada*

Santa María la Real fundación

XIII. mendeko arte erromanikoaren ezaugarria. Antzekotasun guztiak kontuan hartuta, eliza guztiak tailer berari lotuta daudela esan dezakegu, ekialdeko eraginekin, Arabako Mendebaldeko Lautadako eraikin erromaniko hauen ornamentazioan ikusten denez.

Elizaren barrualdean, koruaren azpian eta zoruan, akantodun kapitela dago, jatorri ezezagunekoa.

Testua eta argazkiak: REA

característica del arte románico alavés del siglo XIII. Todas estas iglesias con sus similitudes nos permiten hablar de un mismo taller con influencias orientales presente en la ornamentación de estos edificios románicos de la Llanada alavesa occidental.

En el interior de la iglesia, bajo el coro y en el suelo, se conserva un capitel con acantos, de procedencia desconocida.

Texto y fotos: REA

*Bibliografia* / ***Bibliografía***

Azcárate Ristori, J. M., 1982, p. 45; Castro, C. de, 1915, pp. 195-196, fig. 90; López de Guereñu, G., 1962, p. 378; López de Ocáriz Alzola, J. J., 1988a, pp. 482-486; Osaba y Ruiz de Erenchun, B., 1949, pp. 217-232. Portilla Vitoria, M. J. *et alii*, 1975, pp. 570-572, fig. 831-833, 835-837.

Santa María la Real fundación